

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2025ko lehenengo hiruhilekoari dagokion zerga errolda jendaurrean jartzea eta dirubilketako epea adieraztea

Ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2025ko lehenengo hiruhilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitze jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onetsitzat emango da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ezean.

2025eko maiatzaren 1etik 2025eko ekainaren 15era bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira dagozkion ordainagiriak, borondatezko aldian.

Ordaintzeko era.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den finantza erakundearen kontuetan, 2025eko ekainaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainketa gutunarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak.

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako erreklargua gehituko zaie.

Legutio, 2025eko martxoaren 31n

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTÁZAR